

## Euskeraren plangintza baterako ametsak

Emen doazanak amets batzuk dira. Baina batzuetan ametsak bere bearrezkoak dira.

### 1. Euskeraren egoera

Badagoz Euskalerrian erakunde bat baino geiago euskeraren ardua daukienak. Eurentzat dira batez bere amets oneik. Baina euskaldun guztientzat be bai.

Zenbateraino, zenbatek, non eta zertarako erabilten daben euskaldunak, bakotzak bere euskalkia, jakitea mesedegarri dalakoan nago euskerari buruz plangintza egoki bat egin gura bada. Komenigarri dala uste dot etxean, lagunekaz eta lanean euskaldunok euskerarik erabilten dogun ala ez jakitea. Eta gizarte mailan, eskoletan, zerbitzuetan eta komunikabideetan zenbateraino eta zelako euskera erabilten dan.

### 2. Zelango **euskera erabilten' dan**

Ori jakiteko enquestak eta estadistika bear dira. Nik uste dot euskeragaz arduratuta dagozan erakundeak, danak edo batzuk beintzat, onetarako metodo eta plangintzak eginda eukiko dabezala.

Euskalkiak or dagoz eta ez dot uste baztertu daitekezanik eta utsetik asi, ezer ez balego lez. Euskalkiak erabilten dira eta geienak erabilten dituzte eta orduan orreik neurtzeko eta aztertzeko plangintzaren bat edo beste, ganera laburra, merkea eta ona, egongo dala Euskalerrian uste dot nik. Esate baterako neurtu daitezke fonetika, lexikoa, morfologia eta joskera. Geiago bere bai, baina asteko onek.

- Fonetika. Nik uste dot gaur euskera lenengo berbetatzat daukienen euskeraren otsak zeintzuk diran jakiteko bideak pentsatuta egongo dirala, lenengo analisisa egiteko eta gero sintesisa. Berba bitan esanda, lenengo fonetika jakin gero fonologia egiteko. Olan gaurko euskeraren oinarritzko fonemak aurkitu leitikez. Onek lagungarri izango leitikez guraso euskaldunen umeei euskera erakusteko. Baina familia erdaldunak ere baditugu Euskalerrian. Eta orrein erderaren otsak neurtu bear leitikez, gero bizkaieraren eta bizkaieraren barruan dagozan erdaldunen fonetikaren arteko diferentziak neurtzeko. Eta gero euskalduntzeko plangintza egoki bat egiteko. Eta au berau baten batek euskalki guztiekaz egingo dauala uste dot.
- Lexikoa. An, or edo emen lexiko sailkatzea pentsatuko eban baten batek. Lenengo oinarritzko lexikoa eguneroko komunikasiorako lortu. Baina ez begira eginda lana, edo beste izkuntzetako oinarritzko iztegiak itzulita. Euskalkietan bertan estadistika eta metodo egokiak erabili eta bertatik atarata oinarritzko iztegia baino. Oinarritzko iztegitik gauza batzuk apurka apurka sartuko dira iztegi berezietan. Ez jakitun batzuk iztegi bat egin dabelako, gai bereziak azaltzen dabezanak sartu dabezalako eta erabilten dabezalako. 'Arloa' lur zati bat da baina 'zientzi arloa' esaten dau askok eta askok. Eta berba ori beste zeozer azaltzeko egokitu eta erabili egiten da. Olan lenengo euskalki baten berba eta egiturak ondo eza-gutu ezker, gero matematika irakasteko erabili daitezke. Badaukat itxaropena, an ez bada or, baten batek edo askok oinarritzko iztegi ori egiteko, maiztasuna, banaketa eta prestasuna erabiliko dabezala. Eta orrek danak eginda baditu baten batek, balentzia ere erabiliko dauala. Atzerrian bakotzak bere izkuntza aztertzeko orrelako metodoak erabilten dituez. Eta badaukagula non ikasi eta zer ikasi uste dot. Olan etxe

euskaldunetako umeak zer ikasi bear daben lenengo urtean, bigarreanean, etabar ondo zeaztu leitike. Eta Euskalerriko famili erdaldunekaz bere gauza bardina egin leitike. Euren oinarritzko erdal lesikoa neurtu, gero pausuak obeto emoteko ume orreik euskera ikasi dagien.

- Joskera. Emen bere gauza bardina gertatuko dalakoan nago. Onek edo besteak plangintza zeatz bat eukiko dau euskalki bakotxeko joskera egiturak aztertzeke, maiztasuna eta banaketa kontuan arturik. Euskalki bakotxeko egiturak ondo ezagutu ondoren aukera bat egin daiteke geien erabilten diran eta ezagunen diran egiturak aukeratzeko. Euskaldun errieta-ko erdaldunen erderagaz bere olako zeozer egin bearko leitike, bien arteko diferentzia eta bardintasunak ezagutzeko eta, jakina, metodo, iztegi eta testo egokiak prestatzeko ume erdaldunentzat.

Olan oinarritzko lesikoa eta joskera lortu leitikez, gero euskerari indarra emoteko eta Euskalerrian euskaldun lez bizitzeko.

Baina plangintzak zabalagoak izango diralakoan nago. Eta lesiko orokor bat euskalki bakotxean egiteko zeozer pentsatuta edo asmatuta eukiko dabela batzuk edo besteak. Eta joskera egitura guztiak batzeko metodo edo zeozer bere, asmatuko ebela an, or edo emen. Olan joskerarako egitura orokorrak lortuko geunkez. Eta ori mesede andikoa izango leitike euskeraren etorkizunerako.

Au dana agozko euskera oinarritzat artuta egingo dabela uste dot, olako plangintzak asmatu dabezanak.

Beste arlo bat be badago. Euskera idatzia. Eta euskera idatzirik 'Euskeraren altxorra' lortzeko zeozer pentsatuta eukiko dabe. Euskeraren altxorra berbak miloika erabilia egin bear leitike, eta orregaz batera baina ori baino txikiago, beste lesiko batzuk maiztasuna eta banaketa kontuan arturik eginak.

Au dana egiten dan bitartean, apurka apurka, euskerak irautea gura badogu, komunikabideetan eta zerbitzuetan sartu bearko da. Baina pausuka ez saltoka. Pausuak saltoak baino laburragoak dira. Esate baterako pausoa olan izango litzateke: 'Txominen etxean esan deurie ori'. Ortik olako beste batera pausoa dago: 'Txominen etxean esan dabe ori'. Baina 'Txominen etxean esan dute ori' urrinago dago euskaldun batzuentzat eta pausua barik saltoa emon bear dabe ori

ikasteko. Eskoladunak emon leikie saltoa baina jente arruntak ez eta pausua emoten dabe baitio erderara. Izkuntzan gauza askoren eragina agertzen da eta gaur bere etxe euskaldun askotan erderara edo frantsesera jotzen dabe. Gane ganetik begiratuta au da erri batzuetan gertatzen dana: etxean, kalean eta lagunekaz bizkaiera, elei-zan gipuzkera eta egunkari eta beste komunikabideetan, batua. Orren aurrean erdera bakarra eta ganera indar andiagaz igarri barik entzuten eta ikusten dagozalako Euskalerriko biztanleak. Eta antzeko egoera dago beste euskalki batzuk erabiltzen diran lekuetan.

Argi eta garbi kontuan euki bear dogu euskaldun danok, izkuntza aurrera atarateko artuko dabezan bideen artean, laburrena ez dala onena euskeraren etorkizunerako. Ekonomi aldetik begiratuta bai, merkeagoa izango dalako. Denpora aldetik bere bai, arinago plangintzak eta formulak betetan diralako. Baina euskaldunak euskera geiago eta geiagok erabili dagien bai? Or dago untzia.

Diakroniaren bideak laburrago da ekonomi alderditik begiratuta eta denporaren aldetik. Au da, euskera estandar bat lortzea diakroniaren bidez errezago da. Eskoladunak errezago ikasi daikie eta erabili bere. Baina agozko euskera kontuan artzen ez bada, eten bat sortzen da idazle eta irakurlearen artean. Eta irakurleak ez dau irakurten. Au ez da nik esana. Euskal literaturan krisisa dagola nik baino jente ezagunagoak esan dau. Iztunak geitzen ez diran bitartean, irakurleak ez dira geituko. Eta euskera ez da aurrera joango. Ganera oinarritzko izkuntzaren formak atarateko, beste izkuntza batzuetan beintzat sinkroniara jotzen dabe.

Sinkroniaren bide au apur bat aiztuta egon da gure artean. Baina badaukat itxaropena, an, or, emen, asiko dirala sinkroniaren bidea aztertzen, ezagutzen eta erabiltzen. Bide onetatik jo ezkerro, geien eta ezagunen diran formak aukeratu bear dira izkuntza estandarerrako. Ikaslearen izkuntzatik urrago ego ten dira forma orreik eta errezago egiten jako, gure kasuan, euskera ikastea ikasleari. Eta dakienari, dakien euskera erabiltea be bai. Ganera ikasketa bidean pausoka abiatzen da euskalzalea, saltoak emon barik. Saltoak eskoladunak emon leikez, baino jente arruntarentzat oso gogorak dira eta zailak, eta ez da erabilten eguneroko komunikasinorako iztunari urrineko jakon formarik. Oztopo au gainditzeko legeak ipintzen dira izkuntza bat ofiziala dala esanez, gure kasuan euskera. Baina egoera aldatzen badoa, zenbat eta geroago eta euskera gitxiago era-  
IB

\*...:

bilten bada, legeak egitea ez da naikoa. Sinkronia bideak izkuntzari artifizial usaintxoia bere kentzen deutso. Eta alderdi ortatik bere erreztu egiten da ikasketa.

Sinkroniaren bidea artzen badabe, nik uste dot orregaz batera pentsatuta eta kalkulatuta eukiko dabela zenbat denpora bear dan olako lanak egiteko. Zenbat dim bear dan be bai, eta zelako jentea bearko Htzateken olako lanetarako. Olako ametsak badaukadaz buruan, baina uste dot ez dirala ametsak bakarrik izango. Baten batzuk azur, mamin eta gorputz biurtuko dabezala amets oneik. Bestela euskeraren etorkizuna naikoa ilun geldituko da.

Au emen egingo dabela sinistu gura neuke. Baina emendik kanpora, Madrilen esate baterako, eta beste leku askotan bere badago zeregina. An eta emen bere zoritxarrez, badagoz gaitasunik ez daukienak. Orren eskuetan ezin daitekez itxi izkuntzari dagokiozan legeak. Eta an eta emen bere argi esan bearra dago izkuntzaren arazoak izkuntzaren bidetik konpontzen dirala, tripako mina medizinarene bidez konpontzen dan legez, eta ez botasinoen bitartez. Izkuntzak zaindu eta sendotzeko lanaren kontra dagozanak kulturaren kontra dagoz eta au esan bear da danak jakin dagien. Kultura ez dalako apurtzen eta zapaltzen bonbakaz eta metrailetakaz bakarrik. Borondate oso onagaz bere, gaitasunik ez dagoenean eta beste erdi egi eta guzur batzuk bitartean sartzen diranean, orduan bere kultura eta izkuntza apurtu eta zapaltzen diralako. Eta olakoak andiak egiten dabez, txikiak bere bai eta erdikoak bere bai. Bakarrik andiak balira gitxiago egongo leitikez apurtzen eta geiago eraikitzen.

Baina beintzat gure artean artzen diran erabakiak jakinarene gainean artu bear doguz, ez ilunetan, norantza garoarezan jakinik. Eta ez gasolinetara posporoa bota eta gero surik ez daitela sortu gura.

*J. M. Etxebarria*